



**2014 KO EKAINAREN 20KO
TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamalauko ekainaren hogeian, arratsaldeko ordu bi eta erdietan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Azeari Andonegi Beristain Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Kepa Goenaga Alikostes, Haizea Mendia Insausti eta Maialen Aldasoro Aranburu.

Inazio Estensoro Eskisabel zinegotzia ez da bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2014ko ekainaren 6an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2014ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 43 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientean dagoena, HEMEZORTZI MILA SEIEHUN ETA LAUROGEITA HAMALAU EURO ETA HIRUROGEITA HAMAR ZENTIMO (18.694,70 €)takoa onartu eta ordaintzea erabakitzen da.

III.- INPRIMAGAILUAK KONTRATATZEKO ESLEIPENA.-

Diputatuen Kontseiluaren 2011ko ekainaren 21ean jasotako eskuordetzaz baliatuz, Foru Administrazioiko eta Funtzio Publikoko foru diputatuak 2014ko apirilaren 2ko foru aginduaren bitartez, 2008 MAKELSAKO GIPIUZKOA S.L. (IFZ.: B20983060) enpresarekin Foru Kontratazioen Zentralaren bidez "inprimagailuen hornidura eta mantentze lanak" emateko esparru akordioa (X13014) burutzea erabaki zen.

Lazkaoko Udalari dagokio, Foru Kontratazio Zentralak tramitatutako espedienteari atxikia dagoen erakundea den aldetik, eta hornidura interesatzen zaion neurrian, 2011ko otsailaren 22ko 3/ 2011 Foru Dekretuaren 6. artikuluekin arabera, esparru akordiotik eratorritako kontratua esleitzea, formalizatzea eta gastua baimentzea.

Behin esparru akordioa izenpetu ondoren, zerbitzuburuak, 2014ko ekainaren 13an emandako txostenaren arabera proposatu du "inprimagailuen hornidura eta mantentze lanak" emateko kontratua, esparru akordioa burutzea erabaki den enpresa berari esleitzea eta hala formalizatzea.

Hori dela eta, 2011ko azaroaren 14ko 3/ 2011 Legegintzako Errege Dekretuaz onartutako Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 198. artikuluari ja-



rraituz, bidezkoa da eratorritako kontratua 2008 MAKELSAKO GIPIUZKOA S.L. enpresari esleitzea, izenpetutako esparru akordioaren ondorioetan ezarritako baldintzetan.

Ondorioz, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, honako akordioak onartzen ditu:

LEHENENGO.- "Foru Kontratazio Zentralaren bitartez inprimagailuen hornidura eta mantentze lanak" emateko eratorritako kontratua (X13014) 2008 MAKELSAKO GIPIUZKOA S.L. enpresari (IFZ.: 20983060) esleitzea, esparru akordioa burutzea erabaki den baldintzetan.

BIGARREN.- Enpresa esleipendunarekin kontratua formalizatzea.

IV.- KONPUTAGAILU PERTSONALAK KONTRATATZEKO ESLEIPENA .-

Diputatuen Kontseiluaren 2011ko ekainaren 21ean jasotako eskuordetzaz baliatuz, Foru Administrazio eta Funtzio Publikoko foru diputatuak 2014ko maiatzaren 5eko foru aginduaren bitartez, S.S. HARD S.L. (IFZ.: B48441497), MONTTE S.L. (IFZ.: B20062295) eta IBERMATICA S.A. (IFZ.: A20038915) enpresekin Foru Kontratazioen Zentralaren bidez "informatika ekipoen hornidura" emateko esparru akordioa (X13013) burutzea erabaki zen.

Lazkaoko Udalarari dagokio, Foru Kontratazio Zentralak tramitatutako espedienteari atxikia dagoen erakundea den aldetik, eta hornidura interesatzen zaion neurrian, 2011ko otsailaren 22ko 3/ 2011 Foru Dekretuaren 6. artikularekin arabera, esparru akordiotik eratorritako kontratua esleitzea, formalizatzea eta gastua baimentzea.

Behin esparru akordioa izenpetu ondoren, zerbitzuburuak, 2014ko ekainaren 13an emandako txostenaren arabera proposatu du "informatika ekipoen hornidura" emateko kontratua, esparru akordioa burutzea erabaki den enpresa berari esleitzea eta hala formalizatzea.

Hori dela eta, 2011ko azaroaren 14ko 3/ 2011 Legegintzako Errege Dekretuaz onartutako Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 198. artikuluari jarraituz, bidezkoa da eratorritako kontratuak S.S. HARD S.L., MONTTE S.L. eta IBERMATICA S.A. enpresei esleitzea, izenpetutako esparru akordioaren ondorioetan ezarritako baldintzetan.

Ondorioz, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, honako akordioak onartzen ditu:

LEHENENGO.- "Foru Kontratazio Zentralaren bitartez inprimagailuen hornidura eta mantentze lanak" emateko eratorritako kontratua (X13013) S.S. HARD S.L., MONTTE S.L. eta IBERMATICA S.A. enpresei esleitzea, esparru akordioa burutzea erabaki den baldintzetan.

BIGARREN.- Enpresa esleipendunarekin kontratua formalizatzea.

V.- ELOSEGI-ARESO-SAN INAZIO ESPALOIAK EGITEA KONTRATATZEKO ESLEIPENA .-



Elosegi eta Areso kaleen arteko bihurguneko eta San Inazio auzoko espaloien erreforma lanak kontratatze erakunde honetan jarraitzen den espedientearekin lotuta, Kontratazio Mahaiak egindako proposamena, horrekin batera doan dokumentazioa eta gaiarekin lotutako gainontzeko gorabeherak ikusita, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, honako erabakiak hartu ditu:

1.- kontratua Sasoi Eraikuntzak S.L.ri esleitzea. Kontratuaren prezioa 50.556,71€ gehi B.E.Z. izango da, kontratua burutzeko epea lau 4 astekoa eta berme epea urte (1) bete-koa, beti ere, administrazio-baldintza zehatzen orrian eta esleipendunaren proposame-
nean zehaztutakoen menpe.

Hori guztia, Kontratazio Mahaiak egindako proposamenarekin bat etorritz. Proposa-
mena espedientean jasota dago.

VI.- 1 H.J.A. -C.A.F.-EKO 1.1. B.U.REN BIRPARTZELAKETA PROIEKTUA.-

Udal honetako Tokiko Gobernu Batzarrak, 2012ko azaroaren 16ko batzarraldian, Lazkaoko Planeamenduko Arau Subsidiarioetako 1H.J.A.ko "CAF" 1.1 Egikaritze Unitatearen Birpartzelazio Proiektua hasierako izaeraz -baldintzekin- onartzea eta 20 eguneko epean jendaurreko erakustaldian jartzea erabaki zuen.

Aipatu espedientea jendaurrean erakusgai egon da hogeitun laneguneko denboraldiz, dagokion iragarkia 2012ko abenduaren 11ko 235 zbk.dun Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuz. Era berean, Burutze Unitatean barneratutako lursailen jabeei eta gainontzeko interesatuei jakinarazpen pertsonalizatuak egin zaizkie.

Jendaurreko erakustaldi denboraldian ez da inolako alegaziorik aurkeztu.

2014ko apirilaren 14an, C.A.F.ek, "1.1. -C.A.F.- Egikaritze Unitatearen Birpartzelaketa Proiektua" izenburua duen dokumentua, 2014ko apirileko data daramana, aurkeztu du.

C.A.F.ek aurkeztutako dokumentua aztertu ondoren, txosten teknikoak esaten du hasierako onarpenean jarritako baldintzak bete direla bat izan ezik, 8. lursailari dagokiona. Lursail honi dagokionean akatsa dago, izan ere idatzizko atalean 399,00 m² aitortzen zaizkio eta atal grafikoan 366,00 m². Akatsa idatzizko atalean dago eta hemen esan beharko luke honen azalera 366,00 m²koa dela.

Guzti honen aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, honako akordioak hartzen ditu:

1.- 8. lursailak duen azalera 366,00 m² dela argituz, Lazkaoko Planeamenduko Arau Subsidiarioen 1 H.J.A.ren 1.1 E.U.ren -C.A.F.- Birpartzelaketa Proiektua, behin betikoz onartzea.

2.- Birpartzelaketa Proiektu hau inskribatzera Jabetza Erregistrora bidaltzeko garaian, aurreko puntuan adierazitako 8. lursailaren azalerari buruzko zuzenketa egin beharko da.

VI.- BILERAREN AMAIERA.-



Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, arratsaldeko hirurak zazpi minutu gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

